Azpeitiko Udala

AZPEITIKO AISIALDIKO BARATZA EKOLOGIKOAK ANTOLATZEKO, PRESTATZEKO, DINAMIZATZEKO, IKUSKATZEKO, KONTROLATZEKO ETA AHOLKULARITZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

Azpeitiko Udalak auzotarren eskura jartzen du baratze ekologikoak landatzeko udal-partzelen ustiapena. Jarduera hori 2003an hasi zen, zahartze aktiboko proiektu gisa, eta, ondoren, jarduera beste publiko batzuei ireki zitzaien, eta bi programa garatu dira (2014-2018 eta 2018-2022). Une honetan, Azpeitiko Udalak abian du Baratze Ekologikoak 2022-2030 programa.

Udalak 103 partzela jarriko ditu azpeitiarren eskura, bi kokaleku desberdinetan: Otzaka (72 lurzati) eta Izarraizpe (45 lurzati). Otzakan, lurzati gehienak 80m^2-koak dira, eta batzuk 40m^2-koak, eta Izarraizpekoak 40m^2-koak.

Urteko errentamenduaren prezioan sartzen dira laborantzako tresnen eta lanabesen erabilera eta behar den gutxieneko mantentzea, ur-hornidura eta monitore aditu baten aholkularitza.

Auzotar bakoitzak landu nahi dituen haziak edo landareak ekarri beharko ditu. Ezarritako baldintzak dira landaketa horrek laborantza ekologikoari buruzko arauak errespetatzea eta ustiapen arduratsua eta autokontsumora bideratua egitea.

1. - KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da udaleko aisialdiko baratze ekologikoen programako jarduerak antolatzeko, prestatzeko, dinamizatzeko, ikuskatzeko, kontrolatzeko eta aholkularitza teknikoa emateko zerbitzuak ematea.

Dokumentu honen xedea da Azpeitiko aisialdiko baratze ekologikoetako zerbitzuaren irismena eta baldintzak arautzea eta definitzea.

Zerbitzuaren kontratazioak 2 urteko iraupena izango du, eta urtebeteko bi luzapen egiteko aukera egongo da.

Udal-aisialdiko baratzeak herritarren eskura dagoen eskaintza pedagogiko eta ekologiko gisa ezartzen dira, herritarrek lurra lantzeko eta lurretik fruituak lortzeko espazio publiko bat izan dezaten, betiere autokontsumorako.

Baserriaren eta herriaren arteko lotura da, naturarekiko errespetua irakastearen aldeko apustua, aberastasun naturalaren handitasuna baloratzearen aldeko apustua, gure kulturaren sustraitzea gure lurrera itzultzearen aldeko apustua. Natura errespetatzeko modu bat, naturaren fruituak modu ekologikoan lortzea, baratzezaintza ekologikoan eta ingurune naturalarekiko errespetuan oinarrituta. Herritarrak baserriaren mundura hurbiltzeko modu bat, gure kulturaren eta jarduera sozioekonomikoaren bereizgarria, zaindu eta bultzatu beharrekoa, aisialdi ekologikoko eta pedagogikoko eskaintza baten bidez hura gozatzeko.

Lurzatien titularrek prestakuntza jasoko dute, bai alderdi teknikoei eta nekazaritzari dagokienez, bai eskuragarri dauden instalazioak eta tresnak mantendu eta zaintzeari dagokionez.

Hala, jarduera horrek honako helburu hauek ditu:

- Azpiegitura bat eta baliabide jakin batzuk izatea, erabiltzaileei espazio arautu bat emateko kontsumo pertsonalerako elikagai ekologikoak landatzeko.
- Aisialdiko eskaintza dibertsifikatzea eta aisialdi aktiboa sustatzea.
- Elikadura osasuntsuak osasun ona mantentzeko duen garrantziaz kontzientziatzea.

SINA67563e64-1e93-4dce-b6ab-250e066c48cb

- Baratze tradizionalak erabiltzearen garrantziaz sentsibilizatzea, ingurunera hobeto egokitutako espezie gisa duten balioagatik eta, beraz, zaintza- eta tratamendu-eskakizun txikiagoa dutelako.
- Landa-praktika eta -ezagutza tradizionalak balioestea eta transmititzea.
- Sentimendu positiboak motibatzeko balio batzuk sustatzea, naturarekiko errespetua irakasteari begira, naturaren emaitzak modu ekologikoan lortuz, ingurunearekiko eta ziklo naturalekiko errespetuan oinarrituta, lurzorua degradatu gabe eta ingurunean aldaketa handirik egin gabe.

2. - EZAUGARRI TEKNIKOAK

Udal-aisialdiko baratzeak antolatzeko, prestatzeko, dinamizatzeko, ikuskatzeko, kontrolatzeko eta aholkularitza teknikoa emateko zerbitzua behartuta egongo da baratzeen erabiltzaileei arreta ematera zerbitzu integral baten bidez. Zerbitzu hori Azpeitiko Udal Baratza Parkeetan garatuko da, bai Otzaka inguruan, bai Izarraizpe inguruan. Zerbitzu horrek, gutxienez, honako zerbitzu hauek izango ditu, adierazitako baldintzetan:

- **Harrera-protokoloa** abian jartzea, erabiltzaile berri bakoitzari baratzeen erabilerari, tresna komunei, bete beharreko arauei eta abarri buruzko alderdi teknikoen eta nekazaritzakoen berri emateko.
- Baratzezaintza ekologikoari buruzko **oinarrizko ikastaroa**, autokontsumora eta lursail txikietara egokitua. Esleipendun berriei zuzendua, eta erabiltzaile guztiei zuzendutako beste ikastaro/tailer batzuk. Ikastaroak aldian behin emango dira baratze esleipendun berriak sartzen direnean, 4-6 pertsonako taldeetan. Urtean gutxienez 2 orduko 2 ikastaro eskainiko dira.
- Baratze ekologikoaren esleipendunek izan ditzaketen zalantzei buruzko **tutoretza- eta aholkularitza-zerbitzua**. Aholkularitza-saio bat emango da baratze bakoitzean (Otzaka/Izarraizpe), bi ordukoa hilean, apiriletik urrira, biak barne. Hasiera batean, bilerak arratsaldez izango dira, baina ordutegia Azpeitiko Baratze Elkarteko Batzordeko ordezkariekin adostu ahal izango da. Aholkularitza horrek alderdi hauek bilduko lituzke, besteak beste: baratze bat nola antolatu, landare egokiak nola hautatu, kalitatezko konpost bat nola lortu, ongarri ekologikoen beharrak, balizko fitosanitario ekologikoak, tresnen erabilera egokia, etab. Hori guztia baratzezaintza ekologikoa errespetatzeko eta laboreak modu naturalean babesteko. Abuztuan ez da aholkularitza-zerbitzurik eskainiko. Era berean, aldian behin informazioa eman beharko du eskuragarri dauden instalazioak eta tresnak erabiltzeko, mantentzeko eta zaintzeko araudiari buruz, hau da, 2022-2030 Baratze Programa arautzen duen erregelamenduari buruz.
- Azpeitiko aisialdiko baratze ekologikoen elkarteari aholkularitza ematea eta harekin hitz egitea, gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko.
- Baratzeko jarduera ekologikoarekin lotutako **hitzaldiak edo tailer praktikoak** garatzea. Urtean gai desberdinei buruzko lau tailer eskainiko dira gutxienez: bi Otzakan eta bi Izarraizpen. Gaia Azpeitiko Baratze Parkearen Elkarteko Batzarreko kideekin adostuko da.
- **Lan tresna** komunen kontrola eramatea kontratuak irauten duen bitartean. Behar diren tresnak hornitzea eta baratze-parkeko tresnen kantitatea eta egoera ona bermatzea. Aukera dagoen kasuetan, apurtutako lan tresnak konpondu egingo dira.
- **Gune komunak erabiltzea eta mantentzea**, Azpeitiko Baratze Ekologikoen Elkarteko Batzordeko kideekin lankidetzan, bai eta mantentze-konponketa txikiak egitea eta beharrezkotzat jotzen diren elementuak edo tresnak erostea ere.
- **Lan komunen antolaketa eta dinamizazioa**. Eremu bakoitzean (Otzakan eta Izarraizpen) sortzen diren lan komunen antolaketa burutzea juntakide eta erabiltzaileekin batera eremu bakoitzaren izaeraren arabera. Urtean gutxienez 4 orduko saio bat eremu bakoitzean.
- Udal-sareko **uraren kontsumoa murrizten** dela zaintzea.
- Baratze-parkeko **lursailen emankortasuna** eta egokitasuna bermatzea, lursaila aldizka aztertuz. Gutxienez, bi urtean behin. Lurren analisia et interpretazioa.
- **Ikuskaritza:** Ordenantzan ezarritako udal-aisialdiko baratzeen araudi orokorra betetzen dela zaintzea. Instalazioak eta eskuragarri dagoen materiala behar bezala erabiltzeko ikuskatzea,

SINA67563e64-1e93-4dce-b6ab-250e066c48cb

kontrolatzea eta zaintzea. Gutxienez, ikuskapen bat egingo da hilean espazio bakoitzean (Otzaka eta Izarraizpe), apiriletik urrira, biak barne. Abuztuan ez da ikuskaritzarik burutuko. Ikuskapen bakoitza bukatzen denean txosten bat helaraziko da Udalera ikuskapenaren nondik norakoka zehaztuz. Kontrol- eta zaintza-jardueren barruan, erabiltzaileei **telefono-deiak** egitea sartuko da.

- Udalarekin eta Azpeitiko Baratze Ekologikoen Parkearen Elkarteko Batzordeko kideekin **hitz egin eta koordinatzea**, zerbitzuaren garapenaren berri emateko, esleipendunek erabiltzeko, hobetzeko proposamenak helarazteko eta abar. Horren barruan sartzen da egokitzat jotzen diren bilerak egitea.
- **Baratze elkartearen bilerak** antolatzea eta dinamizatzea. Gutxienez urtean behin (bat Otzakan eta bestea Izarraizpen), eta beharrezkoa bada baratzeen esleipendunek eskatzen dutenean.
- **Dokumentazio- eta koordinazio-zerbitzua**: Azpeitiko Udalari egindako ikuskapen bakoitzaren txosten bat bidaliko zaio (lurzatien egoera, gorabeherak, erabiltzen ez diren lurzatiak, arau-hausteak, etab.), eta, urte bakoitzaren amaieran, urteko txosten bat, gutxienez honako hauek jasoko dituena: egindako lanaren ebaluazioa, jasotako kontsultak eta gomendatutako laborantza-tratamenduak edo -aholkuak, elkarteko zuzendaritzarekiko koordinazioa, erabiltzaileen plangintza eta jarraipena.
- Interesgarritzat jotzen diren beste jarduketa batzuk.
- Zerbitzua euskaraz eskaini beharko da.

3. - UDALAREKIKO HARREMANAK

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du kontratua gauzatzeko. Pertsona hori arduratuko da zerbitzuaren funtzionamendu egokiaz, kalitateaz eta efizientziaz, eta Azpeitiko Udalarekiko harremanen arduraduna izango da.

4. - ZERBITZUAREN ALDAKETAK

Udalak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, ustekabeko arrazoiei edo zerbitzuaren beharrei erantzuteko.

5. - KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 16.637,50 eurokoa da (13.750,00 euro + 2.887,50 euro BEZa) kontratuak irauten duen bi urteetarako. Prezio hori beherantz hobetu ahal izango da eskaintza ekonomikoan.

Kontratuaren balio zenbatetsia 33.275,00 eurokoa da, kontratuaren luzapen posibleak kontuan hartuta.

6. - KONTRATUAREN IRAUPENA

2 urteko iraupena izango du, eta urtebeteko 2 luzapen egiteko aukera egongo da.

SINA67563e64-1e93-4dce-b6ab-250e066c48cb

Azpeitiko Udala

7. - BURUTU BEHARREKO LANEN LABURPENA

BURUTU BEHARREKO LANAK	
HARRERA ETA PRESTAKUNTZA	
HARRERA PROTOKOLOA	Esleipendun berriei Baratze parkearen funtzionamenduaren azalpenak eman: araudia, elkartea, instalazio eta lanabesen erabilerak. Esleipen berriak egiten diren bakoitzean burutu beharko da. Kontratatutako enpresa zuzenean harremanetan jarriko da esleipendun bakoitzarekin.
OINARRIZKO IKASTAROA	Esleipendun berriei oinarrizko ikastaroa ematea, 4-6 pertsonako taldea osatzen denean. Otzaka eta Izarraizpe eremuak desberdinduz. Urtean gutxienez 2 orduko 2 ikastaro.
AHOLKULARITZA ZERBITZUA	Baratzetan sortzen diren gaien edo zalantzen inguruko aholkularitza zuzena edo esleipendunak dituzten zalantzak argitzeko. (Adibidez, baratza antolaketa, landare egokien hautaketa, ongarrien premia, fitosanitario ekologikoak, lanabesen erabilera egokia, uraren erabilera murriztea, etab.) Egutegia: apiriletik urrira (biak barne) bitartean ematen dira, hilabetero bi orduko saio bat (Bat Otzakan eta bestea Izarraizpen). *Oharrra: Abuztuan ez da aholkularitza zerbitzurik izango.* Erabiltzaileek aurretik izango dute aholkularitza saioen egutegia eta ordutegia.
HITZALDIAK ETA TAILERRAK	Urtean, baratze-kideentzat interesgarriak izan daitezkeen gaien inguruko gutxienez 4 tailer desberdin emango dira: 2 Otzakan eta 2 Izarraizpen. (Gaiak, Azpeitiko Baratze Parkeko Elkarteko Juntakideekin adostuko dira eta urteko egutegia garaiz jarriko da bi eremuetako adierazpen guneetan)
AZPEITIKO BARATZE PARKEKO FUNTZIONAMENDUA/EGOERA	
LAN TRESNAK	Baratzeko lan tresna komunen kontrola eramatea, hauen kantitatea eta egoera ona bermatuz. Lan tresnak apurtzen direnean konpondu egingo dira eta, beharrezkoa denean, berriak erosiko ditu enpresak.
GUNE KOMUNAK	Gune komunak erabiltzea eta mantentzea, bai eta mantentze-konponketa txikiak egitea eta beharrezkotzat jotzen diren elementuak edo tresnak erostea ere.
LAN KOMUNAK	Helburua: baratzeen egoera hobetzeko lan komunak sustatzea. Eremu bakoitzean (Otzakan eta Izarraizpen) sortzen diren lan komunen antolaketa burutzea juntakide eta erabiltzaileekin batera eremu bakoitzaren izaeraren arabera. Urtean gutxienez 4 orduko saio bat eremu bakoitzean.
LURREN EMANKORTASUNA ETA EGOKITASUNA BERMATU	Gutxienez, bi urtetik behin lur analisiak egiten dira emankortasuna eta egokitasuna bermatzeko. Lurren analisia eta interpretazioa.
IKUSKARITZA ETA KOORDINAZIOA	
IKUSKARITZA, ZAINTZA ETA KONTROLA	Helburua: Azpeitiko Baratze Parkearen Ordenantza betetzen dela zaintzea. Instalazioak eta eskuragarri dagoen materiala behar bezala erabiltzeko kontrola eta zaintza.

SINA67563e64-1e93-4dce-b6ab-250e066c48cb

	Erabiltzaileekin zuzenean harremanetan jarri (zuzenean zein telefono dei bidez) ordenantzak adierazten duena betetzeko eskatuz. Udalarekin hitz egitea, honako hauek jakinarazteko: zerbitzuaren garapena, esleipendunen erabilera, hobetzeko proposamenak helaraztea, etab. Horretarako, beharrezkotzat jotzen diren bilerak egingo dira. Ikuskapen bakoitza amaitutakoan Udalean txostena aurkeztuko da.
UDALA ETA JUNTAKIDEEKIN KOORDINAZIOA	Udalarekin eta Azpeitiko Baratze Ekologikoen Parkearen Elkarteko Batzordeko kideekin hitz egin eta koordinatzea, horretarako beharrezkoak diren bilerak antolatuz.
ELKARTEAREN BILERAK DINAMIZATZEA	Urtean baratzetako erabiltzaileekin gutxienez bi bilera egingo dira.
DOKUMENTAZIO ETA KOORDINAZIO ZERBITZUA	Ikuskapen bakoitzaren ondoren partzelen egoerari, erabileran izandako gorabeherei eta abarri buruzko txostenak egitea. Gainera, urteko txosten bat aurkeztu beharko da urtean zehar egindako lanaren ebaluazioa, elkartearen zuzendaritzarekiko koordinazioa, baratze-kideen plangintza eta jarraipena barne.
UDALA ETA JUNTAKIDEEKIN BILERAK	Azpeitiko Baratze Parkearen nondik norakoak tratatzeko koordinazio bilerak egitea. Gutxienez urtean bitan.
ZERBITZUA EUSKARAZ EMATEKO GAITASUNA	Zerbitzua ematerakoan euskararen erabilera bermatu beharko da.

8. - ESLEIPEN-IRIZPIDEAK:

Kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onenaren printzipioan oinarritutako esleipen-irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI EDO FORMULEN BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (100 puntu)

Hauek dira kalitate/prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio-irizpideak:

1- **PREZIOA:** 80 puntu gehienez.

2- **Egindako planteamenduaren HOBEKUNTZAK: 20 puntu gehienez.**

- Oinarrizko ikastaroak: proposatzen den bi orduko ikastaro gehigarri bakoitzeko 2 puntu emango dira (gehienez 4 puntu lortu ahal izango dira).
- Aholkularitza zerbitzuaren egutegia: saioak beharren arabera goizez zein asteburuetan eskaini ahal izatearen konpromisoa hartzeagatik 3 puntu emango dira.
- Lan tresnak (gehienez 4 puntu):
  - Kontratuaren hasieran lan tresnen inbentarioa egiteko konpromisoa hartzea: 2 puntu.
  - Udalean entregatzen diren ikuskapen memorietan lanabesen egoeraren berri emateko konpromisoa hartzea: 2 puntu.
- Lan komunak: antolatzeko konpromisoa hartzen den lan komun bakoitzagatik 3 puntu (gehienez 9 puntu).

SINA67563e64-1e93-4dce-b6ab-250e066c48cb

Lan komun adibideak: hazitegiak eraikitzeko lan taldea sortu eta dinamizatzea, bideak konpontzeko lan taldea sortu eta dinamizatzea, etab.

Azpeitian, sinadura digitalean adierazitako datan.

EKS | CSV: SINA67563e64-1e93-4dce-b6ab-250e066c48cb

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Baratza: plegu teknikoak
CSV/EKS:	SINA67563e64-1e93-4dce-b6ab-250e066c48cb

Digitalki sinatua:

Azpeitiko Udala

Libe Solagaistua Zabala
Udal Ingurumen Teknikaria
Data: 2026/05/04 13:05:15